

LANKIDETZA-HITZARMENA, ZALLAKO UDALAREN  
ETA BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN  
ARTEKOA, "ZALLAKO LABRADOR KALEA  
URBANIZATZEKO PROIEKTUAREN" OBRAK  
EGIKARITU ETA FINANTZATZEKO

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL  
AYUNTAMIENTO DE ZALLA Y EL CONSORCIO DE  
AGUAS BILBAO BIZKAIA PARA LA EJECUCIÓN Y  
FINANCIACIÓN DE LAS OBRAS INCLUIDAS EN EL  
"PROYECTO CONSTRUCTIVO DE LA URBANIZACIÓN  
DE LA CALLE LABRADOR EN ZALLA"

Bilbo, 2021eko abenduaren 27an

En Bilbao, a 27 de diciembre de 2021

#### **BILDUTA**

#### **REUNIDOS**

**JUAN RAMÓN URQUIJO** jauna, Zallako alkate-  
udalburua, 2021eko abenduaren 24ko Dekretuaren  
arabera jarduten du.

**D. JUAN RAMÓN URQUIJO**, Alcalde -Presidente del  
Ayuntamiento de Zalla, actuando en virtud de  
Decreto de fecha 24 de diciembre de 2021.

**KEPA ODRIOZOLA AZULA** jauna, Bilbao Bizkaia Ur  
Partzuergoko presidentea, Zuzendaritza  
Batzordearen 2021eko azaroaren 30eko erabakiz  
egintza hau burutzeko eskumena daukana.

**D. KEPA ODRIOZOLA AZULA**, Presidente del  
Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia, facultado para  
este acto por acuerdo del Comité Directivo de fecha  
30 de noviembre de 2021.

#### **PARTE-HARTZAILEAK**

#### **INTERVIENEN**

Parte-hartzaileek euren erakundeetako presidente  
eta ordezkari gisa parte hartzen dute. LANKIDETZA-  
HITZARMEN hau sinatzeko legezko ahalmen nahikoa  
aitortu diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

Los dos intervinientes actúan como Presidentes de  
sus respectivas Entidades y en su representación,  
reconociéndose capacidad legal suficiente para  
celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN,  
y a tal efecto,

#### **ADIERAZTEN DUTE**


#### **EXPONEN**

##### **LEHENENGOA.**

Zallako Udalak (aurrerantzean, Udala), Euskadiko  
Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016  
Legearen 17. artikularekin bat etorritik, eskumen  
propioa balia dezake arlo hauetan: (...) 3)  
Titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu,  
azpiegitura eta instalazioen erabilera antolatzea eta  
kudeatzea.(...) 16) Argiteria publikoa, bide-garbitzeta,  
biztanle-guneetako sarbideak, kale-zoladura eta

##### **PRIMERO.**

Que el Ayuntamiento de Zalla, en adelante  
Ayuntamiento, de acuerdo con la Ley 2/2016, de 7 de  
abril, de Instituciones Locales de Euskadi en el  
artículo 17 puede ejercer como competencia propia  
en los ámbitos de: (...) 3) Ordenación y gestión del uso  
de servicios, equipamientos, infraestructuras e  
instalaciones de titularidad pública (...) 16)  
Ordenación, gestión y prestación del servicio de  
alumbrado público, limpieza viaria, acceso a núcleos



parkeak eta lorategiak antolatzea eta kudeatzea, eta zerbitzu horiek ematea.

#### **BIGARRENA.**

Ur Partzuergoak (aurrerantzean, Partzuergoa) funtsezko helburua du ur-hornidurako eta saneamenduko zerbitzuak ematea bere lurralde-eremua osatzen duten udallerrietan, Partzuergoaren beraren Estatutuen arabera. Estatutuen azken aldaketa 2019ko martxoaren 13an onetsi zuen Batzar Nagusiak.

#### **HIRUGARRENA.**

Gaur egun, Partzuergoak hornidura-zerbitzua ematen du lehen mailako eta bigarren mailako sareetan, eta, halaber, saneamendu-zerbitzua ematen du lehen mailako sarean; Udala, aldiz, saneamenduaren bigarren sarearen arduraduna da.

#### **LAUGARRENA.**

Partzuergoa, gaur egun, Sollanoko EUTaren ustiapenaren arduraduna da. EUTra sartzeko, Zallako Labrador kalean dago sarrera bakarra, eta, ondorioz, egoitza-erabilera batean aurreikusi ezin daitekeen trafikiko-bolumena ari da sortzen udal bide horretan.

#### **BOSGARRENA.**

Udalak, bere eskumenen barruan, Labrador kaleko bidean lanak egin nahi ditu; hain zuzen ere, oinezkoentzako espaloia jarri nahi du, gaur egun ez baitago halakorik.

#### **SEIGARRENA.**

Partzuergoak Sollanoko EUTan gauzatzen duen ustiapenak zerikusia dauka bai kale horretako trafikiko ugariarekin, bai, ondorioz, aipatutako bidean oinezkoentzako espaloia jartzeko premiarekin ere; izan ere, trafikoa areagotu egin denez, espaloia jarri behar da herritarrek kale horretan seguru ibili ahal izan daitezen.

#### **ZAZPIGARRENA.**

"Zallako Labrador kalea urbanizatzeko proiektuan" definitutako obrak egiteko interes handia daukate bi erakundeek, udal-bide horren egoera nabarmen egokitu eta hobetzeko.

#### **ZORTZIGARRENA.**

Kontuan hartu da Administrazio Publikoen arteko harremanetan bete beharreko lankidetzaz-

de población y pavimentación de vías urbanas, así como parques y jardines.

#### **SEGUNDO.**

Que el Consorcio de Aguas, en adelante Consorcio, tiene como misión primordial la prestación de los Servicios de Abastecimiento de Agua y Saneamiento en el ámbito territorial de los municipios que lo componen, según sus propios Estatutos, cuya última modificación fue aprobada por la Asamblea General de 13 de marzo de 2019.

#### **TERCERO.**

Que en la actualidad el Consorcio presta el Servicio de Abastecimiento en red primaria y secundaria, de Saneamiento en Red Primaria, y que el Ayuntamiento es responsable de la Red Secundaria de saneamiento.

#### **CUARTO.**

Que el Consorcio actualmente es responsable de la explotación de la ETAP de Sollano, cuyo único acceso se realiza a través de la calle Labrador en Zalla, por lo que se genera en este vial municipal un volumen de tráfico no previsto en un uso exclusivamente residencial.

#### **QUINTO.**

Que el Ayuntamiento, en ejercicio de sus competencias, tiene interés en actuar en el vial de la calle Labrador, en el que se programa disponer de una acera peatonal, actualmente inexistente.

#### **SEXTO.**

Que existe vinculación entre la explotación de la ETAP de Sollano llevada a cabo por el Consorcio, y el consiguiente tráfico de vehículos que genera, y la necesidad de habilitar una acera peatonal en el vial indicado, que garantice la seguridad de los vecinos que transitan por el mismo.

#### **SEPTIMO.**

Que ambas Entidades tienen el máximo interés en que se lleven a cabo las obras definidas en el referido "Proyecto constructivo de la urbanización de la calle Labrador en Zalla", a fin de adecuar y mejorar considerablemente la situación actual de este vial municipal

#### **OCTAVO.**

Que teniendo en cuenta el principio de cooperación que debe observarse en las relaciones entre



printzipioa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 141.1.d artikuluan ezarritakoa dela bide.

Administraciones Publicas, a tenor de lo establecido en el Artículo 141.1.d de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público.

Aurreko guztia dela-eta, parte hartzaileek lankidetzahitzarmen hau formalizatzen dute, honako klausula hauen arabera:

Por todo lo anterior proceden a formalizar el presente Convenio de Colaboración, con arreglo a las siguientes:

## KLAUSULAK

## CLÁUSULAS

### LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA

Udalaren eta Partzuergoaren artean sinatutako hitzarmen honen xedea da bi erakundeek "ZALLAKO LABRADOR KALEA URBANIZATZEKO PROIEKTUAREN" obrak lizitzatzeko, esleitzeko eta egiteko prozesuaren garapenean duten parte-hartzea erregulatzea.

### PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO

El presente Convenio suscrito entre el Ayuntamiento y el Consorcio tiene por objeto regular la participación de ambas entidades en el desarrollo del proceso de licitación, adjudicación y ejecución de las obras definidas en el PROYECTO DE URBANIZACIÓN DE LA CALLE LABRADOR EN ZALLA

### BIGARRENA.- PROIEKTU TEKNIKOA

Hitzarmen honen xede diren obrak "Zallako Labrador kalea urbanizatzeko proiektua" deritzon proiektuan jasotakoak dira. Proiektu horren kontrata bidezko gutxi gorabeherako egikaritze-aurrekontua 1.174.080,73 EUROKOA izango da (BEZ barne), eta 12 hilabeteko egikaritze-epaia ezarriko da.

### SEGUNDA.- PROYECTO TÉCNICO

Las obras a las que se refiere el Convenio son las correspondientes al denominado "Proyecto constructivo de la urbanización de la calle Labrador en Zalla", que alcanzan un Presupuesto de Ejecución por Contrata, IVA incluido, de 1.174.080,73 EUROS y un plazo de ejecución de 12 meses.

Partzuergoak idatzi du obren inguruko proiektu teknikoa, eta Zallako Udalak onetsi egin du.

El Proyecto técnico que define las obras ha sido redactado por el Consorcio y aprobado por el Ayuntamiento de Zalla.

Proiektuan jasotzen diren jarduketak, nagusiki, honako hauek dira: errepidearen bi ertzetan dauden etxebizitzetara iristeko oinezkoentzako ibilbide bat jartzea, trafikoaren abiadura kontrolatzea eta errepideko seinaleztapena berrantolatzea, inguruko egoiliarrek bide segurua izan dezaten, ibilgailu astunen trafikoak eragindako arriskutik babestuta.

Las actuaciones incluidas en dicho Proyecto son, principalmente la implantación de un itinerario peatonal que permita mantener la accesibilidad a las diferentes viviendas ubicadas en las márgenes de la carretera, controlar la velocidad del tráfico y reordenar la señalización de la carretera, con objeto de disponer un itinerario seguro para los residentes en la zona, protegidos del riesgo ocasionado por el tráfico de vehículos pesados.

### HIRUGARRENA.- LURZORUAREN KUDEAKETA

Udalak bere gain hartuko du lurzoruaren kudeaketa, eta, horretarako, proiektuan jasotzen diren lanek eragindako ondasunak eta eskubideak lortzeko behar diren izapideak egingo ditu; halaber, "Lurzorua erabiltzeko ziurtagiria" emango dio Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari.

### TERCERA.- GESTIÓN DE SUELO

El Ayuntamiento asumirá la gestión del suelo, realizando los trámites pertinentes para la obtención de los bienes y derechos afectados por las obras del Proyecto, facilitando al Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia un "Certificado de disponibilidad de suelo".

Lurzorua erabiltzeko ziurtagiria obra lizitatu aurretik eman beharko dio Partzuergoari, lanak egiteko behar diren ondasunak eta eskubideak dauzkala egiaztatzeko.

Lurzorua kudeatzeko orduan, Udalak, hala eskatzen badu, eremu honetan Partzuergoari aholku ematen dion laguntza teknikoa jaso ahalko du, eta Partzuergoak bere gain hartuko du laguntza horren kostua.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak idatzitako proiektuan, partzelak eta beren afekzioa (erabateko jabaria, zortasuna edo aldi baterako okupazioa) zehazten dira.

Udalak, hitzarmen hau sinatzearekin batera, Ur Partzuergoari ahalmena ematen dio bere izenean lanak egikaritzeko behar adina eskari, baimen, eskabide eta izapide egiteko erakunde egokiei.

#### **LAUGARRENA. - OBRAK KONTRATATZEA**

Partzuergoak kontratatuko ditu lanak. Ondorioz, berak izapidetu beharko du kontratazio-prozedura osorik, bere eskumen eta araubidearen arabera.

#### **BOSGARRENA. - OBREN ZUZENDARITZA**

Behin obra kontratatu, beharrezko baimen guztiak eskuratu eta luzorua kudeatu ondoren, Partzuergoko teknikariek zuzenduko dituzte obrak.

#### **SEIGARRENA. - OBREN FINANTZAKETA ETA LURZORUAREN KUDEAKETA**

Partzuergoari dagokio obrak eta obren zuzendaritzarentzako laguntza teknikoa finantzatzea. Balioetsitako programazioaren arabera, hitzarmenean jasotzen diren lanak 2022an hasi eta egikarituko dira osorik; hortaz, Ur Partzuergoak urte horretarako duen aurrekontuan, obraren zenbateko osoa jasotzen duen aurrekontu-partida bat dago (16942.65001 partida).

Bestalde, lanak egiteko behar diren lursailen desjabetze-kostuak Udalak ordainduko ditu oso-osorik.

Hori guztia ikusita, hitzarmenean parte hartzen duten alderdiek aurrekontu-gordailu nahikoak egin

Este Certificado de disponibilidad de suelo deberá ser entregado al Consorcio previamente a la licitación de la obra, para comprobar que se dispone de los bienes y derechos necesario para ejecutar la obra.

Para la gestión del suelo el Ayuntamiento, si así lo solicita, podrá contar con el apoyo de la asistencia técnica que asesora en este ámbito al Consorcio, que se hará cargo del coste de la misma.

En el proyecto redactado por el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, están definidas las parcelas y su afección (pleno dominio, servidumbre u ocupación temporal).

El Ayuntamiento, mediante la suscripción del presente Convenio, faculta al Consorcio para realizar en su nombre cuantas peticiones, autorizaciones, solicitudes y tramitaciones sean necesarias ante los organismos correspondientes para la ejecución de la obra.

#### **CUARTA. - CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS**

Las obras serán contratadas por el Consorcio En consecuencia, será obligación de éste la tramitación completa del procedimiento de contratación, de acuerdo con las facultades y el régimen que le son propios.

#### **QUINTA. - DIRECCIÓN DE LAS OBRAS**

Las obras, una vez contratadas y disponiendo de todas las autorizaciones precisas y con la gestión del suelo hecha, serán dirigidas por técnicos del Consorcio.

#### **SEXTA. - FINANCIACIÓN DE LAS OBRAS Y DE LA GESTIÓN DEL SUELO**

La financiación de las obras, así como de la asistencia técnica a la Dirección de Obras corresponde al Consorcio. De acuerdo a la programación estimada, las obras contempladas en el Convenio se iniciarán en 2022 y por tanto, el presupuesto del Consorcio de Aguas para ese año, contempla una partida presupuestaria donde se recoge el importe completo de la obra (Partida 16942.65001).

Por otra parte, el coste correspondiente a las expropiaciones de los terrenos necesarios para la ejecución de las obras será de abono integro por el Ayuntamiento.

A la vista de lo anterior cada una de las partes que intervienen en el Convenio se obligan a efectuar las consignaciones presupuestarias suficientes para

beharko dituzte nork bere gain hartutako betebeharrak ekonomikoak aurre egiteko.

#### **ZAZPIGARRENA. - OBRAREN ETA LURZORUAREN TITULARTASUNA**

Udalak izango du aipatutako bidea urbanizatzeko elementuen titulartasuna, eta, ondorioz, mantentze- eta berritze-lanak egin beharko ditu bidean; Partzuergoak, berriz, ez du inolako erantzukizunik izango.

Zuzendaritzak lanak hartzen dituen unean, titulartasuna eskualdatuko da, Jarraipen Batzordeko udal-langileek berariaz adierazten badute ados daudela.

Horretarako, dagokion ekitaldi formalera bertaratu beharko dute udal-langile horiek; bertan, lagapen-akta bat sinatuko da BBUPren eta Udalaren artean.

Obrak egite aldera erabateko jabarian okupatutako lurzorua udal-jabari publikoaren zati bihurtuko da, bidezaintzari buruzko kapituluan.

#### **ZORTZIGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA**

Hitzarmen honetan erabakitakoaren jarraipena egiteko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Batzorde hori lau pertsonak osatuko dute: Udaleko bi ordezkariak eta Partzuergoko beste bik.

Batzordearen xedea izango da hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean alderdien artean sortzen diren arazo teknikoak, ekonomikoak eta lankidetzakoak argitzea.

#### **BEDERATZIGARRENA. - HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUNALDIA**

Hitzarmenak sinatzen denetik obrak hartzeko akta sinatu arte izango ditu ondorioak, eta aldi horretan sortuko dizkie betebeharrak parte hartu duten bi aldeei; nolana ere, 4 urteko iraupena izango du.

#### **HAMARGARRENA.- HITZARMENAREN IRAUNGIPENA**

Hitzarmen hau aurreko klausulan jasotako indarraldia igarotzen denean, sinatzaileak ados jarrita edo kontratua indargabetzen denean iraungiko da.

hacer frente a las obligaciones económicas que contraen.

#### **SEPTIMA. - TITULARIDAD DE LA OBRA Y DEL SUELO**

El Ayuntamiento adquirirá la titularidad de los elementos de la urbanización del vial de referencia, y, en consecuencia, la obligación de mantenimiento y reposición, quedando el Consorcio expresamente liberado de toda responsabilidad.

El traspaso de dicha titularidad se producirá en el momento de la Recepción de las obras por la Dirección de las mismas, con la conformidad expresa de los miembros del Ayuntamiento que integran la Comisión de Seguimiento.

Para ello, se convocará a los miembros del Ayuntamiento al acto formal correspondiente, en el que se firmará un Acta de Cesión entre el CABB y el Ayuntamiento.

El suelo ocupado en pleno dominio para la construcción de las obras pasará a formar parte del Dominio Público municipal correspondiente al capítulo de vialidad

#### **OCTAVA.- COMISION DE SEGUIMIENTO**

Para el seguimiento de lo estipulado en el presente Convenio se creará una Comisión de Seguimiento que estará integrada por cuatro personas, dos por parte del Ayuntamiento y dos por parte del Consorcio.

El cometido de la Comisión será el de dilucidar cuantas cuestiones técnicas, económicas y de colaboración entre las partes se susciten durante la vigencia del Convenio.

#### **NOVENA. - EFECTOS Y DURACION DEL CONVENIO**

El Convenio surtirá efecto y obligará a las partes intervinientes desde su firma hasta la fecha de la firma del Acta de Recepción de las obras, en todo caso la duración será de 4 años.

#### **DECIMA.- EXTINCION DEL CONVENIO**

El Convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referida en la cláusula anterior, por el acuerdo unánime de los firmantes, o por resolución.

Alderdietako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste alderdiak hitzarmena zorrotz bete dadin edo iraungi dadin eskatu ahalko du.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra a exigir su estricto cumplimiento o a solicitar su resolución.

Azaldutakoarekin ados daudela adierazteko, agertutako bi alderdiek hitzarmenaren bi ale sinatu dituzte goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Y en prueba de conformidad, lo firman los dos comparecientes, por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

**Zallako Udaleko Alkartea**  
**El Alcalde del Ayuntamiento de Zalla**



**Sin./Fdo.: Juan Ramón Urquijo**

**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko Presidentea**  
**El Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia**



**Sin./Fdo.: Kepa Odriozola Azula**